



BIGEren INFORMAZIO-BULETINA

1. ZENB., 2006ko URRIA

EDUKIAK:

- [EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA](#)
- [EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN 16. JAIA](#)
- [BIGEren BLOG BERRIA](#)
- [ESKOLA ORTU EKOLOGIKORAKO GIDALIBURUA](#)
- [BIDEO LEHIAKETA](#)
- [EUSKAL HERRIA MUSEOA](#)
- [GUREKIN HARREMANETAN JARRI](#)

[EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA](#)

2006186 zk. 2006ko irailak 28, osteguna

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila

[IRAGARKIA](#), "kudeaketa zuzeneko jantokiak dituzten Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko ikastetxe publikoak janari prestatuz eta lehengaez hornitzea eta antzeko zerbitzuez hornitzea" helburu duen lehiaketa publikoa esleitu dela argitara emateko dena.

2006185 zk.– 2006ko irailak 27, asteazkena

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila

[AGINDUA, 2006ko irailaren 20koa](#), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, ikastetxe publikoetan ikasketak egiten ari diren eta hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleak garraiatzeko banan-banako diru-laguntzetarako deialdia egiten duena.

2006181 zk.– 2006ko irailak 21, osteguna

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila

[EBAZPENA, 2006ko ekainaren 26koa](#), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, 2006. urteari dagokion "Migel Altzo" sari-lehiaketako epaimahaiak emandako ebazpena argitaratzen duena.



[EBAZPENA, 2006ko ekainaren 26koa](#), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, 2006. urteari dagokion "Ixaka Lopez-Mendizabal" izeneko lehiaketan saritutako euskal ikasmaterial inprimatuen berri ematen duena.

2006172 zk. – 2006ko irailak 8, ostirala

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila

[IRAGARKIA](#), EAEko ikastetxe publikoak altzari homologatuz hornitu, horiek eraman eta instalatzea helburutzat duen lehiaketa publikoa esleitu dela argitara ematen duena.

2006170 zk. – 2006ko irailak 6, asteazkena

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila

[AGINDUA, 2006ko uztailaren 27koa](#), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen eta Europako estatu eta herrietako ikastetxeen arteko eskola-trukeak eta aldeanizetako topaketak egitea errazteko dotazio eta diru-laguntzetarako deia egiten duena.

2006168 zk. – 2006ko irailak 4, astelehena

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila

[AGINDUA, 2006ko ekainaren 28koa](#), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, 2005-2006 ikasturterako Karmele Alzueta sarirako dei egiten duena.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN 16. JAIA

Aurten Bizkaian ospatuko da Euskal Eskola Publikoaren Jaia. **Ondarroan** izango da, **ekainaren 3an**. Ikasturtean zehar egun horren berri emango dizuegu. Beti bezala parte hartzera animatzen zaituztegu.

BIGEren BLOG BERRIA

Aldaketa batzuk egin ditugu BIGEren web gunean eta *blog* bihurtu dugu. Hainbat berrikuntza ikusiko dituzue bertan:

- Blogaren erdikaldean agertzen diren **berriei erantzun eta zuzenean argitaratzeko aukera** izango duzue. Horretarako berriaren amaieran agertzen den loturan klikatu baino ez duzue.
- **Berriak kategoriatan antolatzen dira**. Kategori bateko berriak irakurri nahi badituzue ezkerreko menuko Kategoria atalean aurkituko dituzue.
- **Egutegian** egun zehatz batean argitaratutako berriak ikusteko aukera izango duzue.

***Informazio gehiago:** www.gurasoelkarteak.org



ESKOLA ORTU EKOLOGIKORAKO GIDALIBURU PRAKTIKOA

Oraintxe duzu aukera "Egin dezagun ortu bat. Eskola ortu ekologikorako gidaliburu praktikoa" erosteko. **6 euroren truke eskaintzen dizuegu eskolan zein etxean landu daitekeen materiale praktikoa hau.**

***Eskarak: BIGE Gurasoen Elkartea (94 416 93 60)**

BIDEO LEHIAKETA

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailak "**Kulturartekotasuna nire auzoan**" izeneko lehen bideo lehiaketa antolatu du. Bertan parte hartu dezakete EAEko DBH eta DBHOko ikasle guztiek. Migrazioei eta kultura desberdinen elkarbizitzari buruzko hausnarketa sustatzea da ekimen honen helburua.

***Informazio gehiago: www.gizaetxe.ejgv.euskadi.net**

EUSKAL HERRIA MUSEOA

Gernika-Lumoko Euskal Herria Museoak Euskal Herriko Historian zehar bidaia egiteko aukera eskaintzen du. Horretarako maketak, arte-lanak, ikus-entzunezkoak eta era guztietako objektuak erakusten ditu. Museoa taldeka bisitatzeko hiru aukera daude: gidari gabeko bisita librea (irakasleentzako materiale pedagogikoarekin), bisita gidatuak eta ekintza didaktikoak (tailerrak)

***Más información: www.bizkaia.net/euskalherriamuseoa/**

GUREKIN HARREMANETAN JARRI

Hemen aurkituko gaituzu:

BIGE Gurasoen Elkartea

Ronda, 27 1º ezk.

48005 BILBAO

T. 94 416 93 60

F. 94 416 66 48

Posta elektronikoa: bige@ehige.org

GURE ORDUTEGIA

Astelehenetik ostegunera: 9etatik 14etara eta 17etatik 20etara

Ostirala: 9etatik 14etara

www.gurasoelkartea.org